



KONTSEILUKO LEHENDAKARIA: Nekane Zeberio Ganzarain

KONTSEILUKIDEA: Inés Vadillo Alzola

KONTSEILUKIDE-IDAZKARIA: Daniel Martínez Monge

Gasteiz, bi mila eta hamazortziko apirilaren hamaika.

Ikusirik Gardentasunaren Foru Kontseilu honetan Autobuses Cuadra, S.A. sozietateak (IFZ: A-01.018.258; jakinarazpenetarako helbidea: Pankueta poligonoa, z.g., 01468 Amurrio) Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren 1533/2017 Foru Agindu abenduaren 29koaren kontra aurkeztutako erreklamazioa.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Espedientean jasotako dokumentazioari darionez, 2017ko abenduaren 13an, Sociedad Concesionaria Intermodal Bilbao sozietateak eskaera bat aurkeztu zion Arabako Foru Aldundiaren Erregistroari, sarbidea ukan nahirik C-02 Bilbo-Logroño bidaiarien erabilera orokorreko hiri arteko garraio zerbitzu publikoan 2017ko otsailaren 24a eta abenduaren 31 artean izandako pertsona bidaiarien estatistika datuetara.

Bigarrena.- Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren 1533/2017 Foru Agindu abenduaren 29koaren bidez, ebatzi zen informazio eskaera hori Autobuses Cuadra S.A. enpresari igortzea, zeina C-02 Bilbo-Logroño bidaiarien erabilera orokorreko hiri arteko garraio zerbitzuaren kontzesiodun baita; eta, hala ebatzi zen, zeren 19/2013 Legearen 19.4 artikuluan xedatutakoaren arabera (19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernamentu onari buruzkoa; aurrerantzean GHPGOL deituko diogu), *“eskatzen den informazioa, eskaera zuzendu zaion subjektuaren esku egon arren, beste batek sortua bada osorik edo zati nagusi batean, hari igorriko zaio eskabidea, informazio horretarako sarbidea eman edo ez erabaki dezan”*.

Hirugarrena.- Iragan 2018ko urtarrilaren 9an, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroan sartu zen Autobuses Cuadra S.A. sozietatearen idazki bat, aurka egiten ziona C-02 Bilbo-Logroño bidaiarien erabilera orokorreko hiri arteko garraio zerbitzu publikoan 2017ko otsailaren 24a eta abenduaren 31 bitartean izandako pertsona bidaiarien estatistikak emateari. Idazki horretan agertzen zuen, gainera, ezen, aurka egiteko aurkeztutako alegazioak ezetsiz gero, aditu zedila aurkeztutzat, arrazoi horiengatik berengatik, erreklamazio bat Gardentasunaren Foru Kontseiluan Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren 1533/2017 Foru Aginduaren kontra, eskatutako informaziorako sarbidea uka zedin. Idazki hori eta idazki horren kopia bat igorri zitzaizkion Gardentasunaren Foru Kontseiluaren lehendakariari iragan 2018ko urtarrilaren 12an.



OINARRI JURIDIKOAK

1. Autobuses Cuadra S.A. sozietatearen idazkian jasotzen diren eskabideetako lehenaz den bezainbatean, zeina informazio estatistikora sarbidea ematearen kontrakoa baita, adierazi beharra dago ezen Kontseilu honek ez duela eskumenik ez eskaera hori aztertzeko ez ebazteko, zeren, eta, 1/2017 Foru Arauaren 35.5 artikuluan eta xedapen gehigarrietako lehenean xedatutakoaren arabera (1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onari buruzkoa), Gardentasunaren Foru Kontseiluak ezin dezake ebatz informaziora sarbidea izateko prozedura baten barruan eta menturazko administrazioarekiko auzi errekurtsu nahierako baten aurretik aurkezten zaizkion erreklamazioez baizik.

Lehen azaldutako hori alde batera utzita, adierazi beharra dago ezen ez dela bidezkoa, ezta ere, Autobuses Cuadra S.A. sozietatearen idazkia Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuari itzultzea, kontra agertzeko eskabideaz ebatz dezan, zeren eta gai hori lehenago proposatu behar baitzen, zehazki, errekurtsuz aurkatutako foru agindua jaulki baino lehenago. Horri buruz, argi adierazten du GHPGOLek 19.3 artikuluan, ezen *“eskatutako informazioak hirugarren behar bezala identifikatuen eskubide edo interesei eragin ahal izanez gero, hamabost eguneko epea emango zaiela, dagozkion alegazioak egin ahal izan ditzaten. Eskatzaileari horren berri eman beharko zaio, bai eta alegazioak jaso arte edo haiek aurkezteko epea igaro arte ebazpena emateko epea geldieran utzi izanaz ere”*.

2. Autobuses Cuadraren bigarren uztiaz den bezainbatean, alegia, Gardentasunaren Foru Kontseiluan Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren 1533/2017 Foru Aginduaren kontrako erreklamazio bat aurkeztuz Sociedad Intermodal Bilbao sozietatari estatistika datuetarako sarbidea ukatzea, aztertu beharra dago, gaiaren funtsa aztertzen hasi aurretik, ea eskaera horrek betetzen ote dituen erreklamazio hori aurkezteko bete beharreko baldintzak, zeinak, 1/2017 Foru Arauaren 35.5 artikuluan ezarritakoaren arabera (1/2017 Foru Agindua, otsailaren 8koa, gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onari buruzkoa), oinarrizko legerian baitaude ezarrita, hau da, GHPGOLn bertan.
3. Erreklamazioa aurkezteko epeaz den bezainbatean, GHPGOLek dio 24.2 artikuluan ezen erreklamazioa aurkezteko epea hilabete izango dela aurkatutako egintza jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, eta, hain zuzen, epe horri heldu zion erreklamazioak, zeren eta Foru agindua 2017ko abenduaren 29an eman baitzen, eta Autobuses Cuadraren idazkia 2018ko urtarrilaren 9an sartu baitzen Arabako Foru Aldundiaren Erregistroan.
4. Nola eta Arabako Foru Aldundia den erreklamazioa aurkezten zaion erakundea, bat dator 1/2017 Foru Arauaren aplikazio eremu subjektiboarekin (1/2017 Foru Agindua, otsailaren 20koa, gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onari buruzkoa).

Beste alde batetik, bat etorri 1/2017 Foru Agindauren lehen xedapen gehigarrian eta Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2017 Foru Dekretu otsailaren 21ekoan xedatutakoarekin, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, zeinari aurkeztu baitzitzaio erreklamazioa, badu foru erakunde horren gaineko eskumena.

5. Zalantzakoa izan liteke ea Autobuses Cuadra S.A. sozietateak ba ote duen legitimazio aktiborik 1533/2017 Foru Aginduaren aurka jotzeko, enpresa hori ez baita estatistika informaziorako sarbidea izateko eskaera egin duena. Bada, hori dela eta, gardentasunaren gaineko araudiak ez du



konponbiderik ematen, eta, beraz, GHPGOLren 24.3 artikulua dioen gisan, 39/2015 legea aplikatu beharko da ordezko (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Hain zuzen, lege horren 112.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio ebazpen bati administrazio bidean aurka egiteko, interesdun izan beharra dago, eta Autobuses Cuadra S.A sozietatea hala da, zeren eta ezin baita ahaztu interesdun kontzeptua zabala dela, hainbat motatakoak direla interesdunak administrazio zuzenbidean halakotzat onartuak, eta, mota horietako batekoa izan daitekeela, hain zuzen, erreklamatzailerak, zeren eta, informazio publiko sarbidea izateko prozedura berak hasi gabe ere eta alde batera utzi arren eragin ahal zaizkien eskubideen titularra izan daitekeela, errekurtsio aurkezturik aurka egin zaion foru aginduak betebeharrak bat sortzen baitu harentzat, alegia, Sociedad Concesionaria Intermodal Bilbao sozietateak bere garaian aurkeztutako sarbide eskaerari buruz ebaztekoa.

6. Behin egiaztaturik behartzen duela 1/2017 Foru Arauak erakundea zeinaren aurka erreklamazioa aurkeztu baita, eta egiaztaturik orobat Gardentasunaren Foru Kontseiluaren eskumen subjektiboa eta erreklamatzaileraren legitimazioa, egiaztatu beharko da, ondotik, badela egiaz informazio publikoaren eskaera bat, zeren eta, 1/2017 Foru Arauaren eta 5/2017 Dekretu otsailaren 21ekoaren arabera, Kontseilu horrek ez baitu eskumenik bestelako uzirik aztertzeko.

Autobuses Cuadraren uzia, hain zuzen, informazio publikorako sarbidea ukatzea da, eta, beraz, beharrezkoa da Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren 1533/2017 Foru Agindu abenduaren 29koaren kontrako erreklamazioa izapidetzea.

7. Erreklamazioaren xedea da informazio publikorako sarbideari buruzko gai baten ebazpen espresua, hain zuzen, 1533/2017 Foru Agindu hori, zeinaren bidez igorri baitzitzaion informazio eskaera Autobuses Cuadra S.A sozietateari, enpresa hori delako, C-02 Bilbo-Logroño hiri arteko garraio kontzesioaren esleipendun gisa, Sociedad Concesionaria Intermodal Bilbao sozietateak eskatutako informazioa egin edo sortu zuena.
8. 1/2017 Foru Arau horren 18. artikulua arabera, adituko da informazio publikoa dela *“Foru Arau honen 3. artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozeinen eskuetan diren eduki edo dokumentuak, edozein dela ere haien formatua edo euskarria, haien beren eginkizunak betez sortu edo eskuratu dituztenak”*.

Beraz, Foru Arauak lehendik den informazioari buruz definitzen du sarbidea izateko eskaera, zeren eta informazio hori foru sektore publikoa eratzen duen entitate baten edo entitate horri informazio hori esmateko betebeharrak duten beste subjektu batzuen esku baitago, nahiz eurek berek sortu dutelako informazio hori, nahiz beren eginkizunak betez eta esleiturik dituzten eskumenak baliatuz eskuratu dutelako.

Kasu honetan, Garraioen Foru Zerbitzuak, Sociedad Sociedad Concesionaria Intermodal Bilbao sozietateak galdegindako estatistika datuak dauzkan administrazio organoak, ez ditu informazio horiek sortu, baizik eta Autobuses Cuadra sozietateak, kontzesiodun gisa, zeinak, gainera, uste baitu bere eskubide edo interesei erasan ahal zaiela informazio hori ematen bada.

9. Informazio publikorako sarbidea izateko eskubidea erabiltzeaz den bezainbatean, ikusirik eztabaidaren zer-nolakoak, merezi du nabarmentzea, lehenik eta behin, ezen GHPGOLen 2.



artikuluak eta 1/2017 Foru Arauaren 3. artikuluak, beren eremu subjektiboa ezartzean, bakoitzak behartasun mota ezberdinak ezartzen dituztela arau xedapen horientzat, publizitate aktiboari eta informazio publikora sarbidea izateko eskubideari dagokionez.

Hala, lehenbiziko maila batean, administrazio publikoak eta haien sektore publikoak osatzen dituzten gainerako entitateak daude, funtsesan, eta bereziki, Arabako lurralde historikoaren kasuan, foru sektore publikoa eratzen duten enteak, hau da, Arabako Foru Aldundia, haren organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko foru entitate publikoak, foru sozietate publikoak, eta foru sektore publikoko fundazio eta partzuergoak. Horientzat guztientzat, nahitaez bete beharrekoa da GHPGOLren eta 1/2017 Foru Arauaren eduki oinarritzko guztia, hau da, publizitate aktiboari eta informazio publikorako sarbidea izateko eskubideari dagozkion betebeharrak guztiak.

Estatuko legearen eta Foru Arau horren petik bigarren behartasun maila batean daude, ordea, eta publizitate aktiboaren arauak dagokienez bakarrik, alderdi politikoak, sindikatuak eta enpresari erakundeak, eta baita ere urtebeteko epean 100.000 eurotik gorako dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten entitate pribatuak edo urteko beren dirusarreretan gutxienez % 40 laguntza edo dirulaguntza publikozkoa dutenak.

Azkenik, hirugarren mailan, zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak eta sektore publikoko kontratuen esleipenduak daude, eta haiek ez dute berez publizitate aktiboari edo informazio publikorako sarbidea izateko eskubideari dagokion betebeharrak, baizik eta laguntzaile izateko betebeharrak bat, hain zuzen, beren esku daukaten informazioa ematekoa, hartara betebeharrak horiek badituztenek beren betebeharrak bete ahal izan ditzaten. Horregatik, hain zuzen, Gardentasunaren Foru Arauaren 32. artikuluak, 5. paragrafoan, hala nola GHPGOLek 17. 1 artikuluan, xedatzen dute hau xedatzen dute: *“zerbitzu publikoak ematen dituzten edo administrazio ahalak darabiltzaten pertsona fisiko eta juridikoen esku dagoen informazioaz ari garenean, pertsona fisiko eta juridiko horiek zein sailekin duten lotura, sail horretako administrazio unitateek izapidetu beharko dituzte eskabideak”*.

Horiek horrela, araudiak, ez estatuko oinarritzkoak ez foru araudiak, ez diote ezartzen Autobuses Cuadra enpresari gardentasun betebeharrak 1/2017 Foru Arauaren III. kapituluaren ezarritako gisan, ezpada, C-02 Bilbo-Logroño garraio linearen kontzesiodun den heinean, eta hirugarren maila batean kokatuta dagoenez, laguntzaile izateko betebeharrak bat du, eta foru erakundeak zeinarekin harremana baitauka errekerimendua egiten dionean, hark behar duen informazio guztia eman behar dio, informazio publiko hornitzeko betebeharrak betetzeko behar duen guztia, besteak beste.

10. Ez 1/2017 Foru Arauak ez GHPGOLek ez dituzte arautzen informazio publikora sarbidea izateko prozedurak, eta, beraz, dagozkion arau orokorren pean izango dira. GHPGOLren 19.3 artikulua ez bestek ezartzen du nahitaez bete beharreko izapide bat, hain zuzen, hirugarrenei entzutekoa, haiek behar bezala identifikaturik, baldin eskatzen den informazioak haien eskubide edo interesei eragin ahal badie, hartara egoki deritzeten alegazioak egin ahal izan ditzaten hamabost eguneko epean.

Hala ere, Legeak ez du zehazten zeintzuk izan ahal diren hirugarren horiek; behar bezala identifikatu behar direla baizik ez du xedatzen. Kontsideratuz ezen administrazio eremuan hirugarrenaren kontzeptua oso zabala dela eta hedakorra dela, eta hirugarren izan daitekeela edozein pertsona, egiaz edo menturaz administrazio jardunek eragin ahal diotena, nahiz eta jardun horiek ez berak sustatu izan edo ez parte hartu izan jardun horietan, baina onartutako ebazpenak haren eskubide edo interesei menturaz eragin diezaiekelarik, hartara, hortik bideratu ahal izango litzateke Autobuses Cuadra S.A. sozietatearen egoera eta 19. 3 artikuluan aipatzen den



hirugarrenaren figura horretan kokatu, eta, hartara, epe bat eman beharko zitzaiokeen bere interesak defendatzeko egoki leritzen alegazioak aurkezteko, zeren eta ebazteko ardura duen organoak baloratu eta haztatu egin behar baititu kasuan eragiten duten interes publikoak eta pribatuak.

Guztiarekin ere, ez da ahaztu behar ezen Autobuses Cuadraren nahiz beste edozein hirugarrenen alegazioak kontuan hartuko direla ebazteko orduan, baina ezingo dutelarik inolaz ere berez galarazi edo eragin edo erabaki galdegindako informaziorako sarbideaz; nolana ere, dena delako ebazpen hori dagokion foru sailaren titularrak eman beharko du, Foru Arauaren 31. artikuluan informaziorako sarbideari darizkiokeen mugak haztatu ondoren.

Izapide hori, beraz, aginduzkoa da, eta funtsezko, hirugarrenen eskubideak edo interesak tartean diren kasu guztietan egin beharrekoa, are sarbidea izateko eskubidea irudiz gailen izan behar duten kasuetan ere. Hala ere, Garraio Zerbitzuak igorritako dokumentazioan ez da ageri alegazio epe hori eman izan zaienik informaziorako sarbideak eragin ahal dien pertsoneri, eta beraz, entzunaldia emateko izapide nahitaezkoa urratu egin da, eta egoera hori Auzitegi Gorenak aintzat hartutako beste egoera batzuen parekotzat jo ahal da hartara, 2007ko uztailaren 17an eta 2004ko irailaren 30ean emandako epaietan aipatzen direnen parekotzat, alegia, deuseztagarritzat joz, babesgabetasuna eragiteagatik, zeren eta Autobuses Cuadra sozietateak ezin izan baititu alegatu bere interesak babesteko egokitzen jo ahal ziren egitezko eta zuzenbidezko arrazoiak.

11. GHPGOLen 19. artikulua, zeina prozeduraren izapidetzeari buruzkoa baita, 4. paragrafoan, honela dio: *“eskatzen den informazioa, eskaera zuzendu zaion subjektuaren esku egon arren, beste batek sortua bada osorik edo zati nagusi batean, hari igorriko zaio eskabidea, informazio horretarako sarbidea eman edo ez erabaki dezan.”*

Arau hori aplikatuz, aditzen da ezen, nahiz eta Sociedad Concesionaria Intermodal Bilbaok eskatzen dituen datuak Arabako Foru Aldundiaren esku zeuden, Autobuses Cuadra enpresak sortu zituela guztiz, eta, horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren 1533/2017 Foru aginduaren bidez, xedatu zela igor zekiola Sociedad Concesionaria Intermodal Bilbaok egindako eskaera C-02 zerbitzuaren kontzesioduna zen enpresari, hark erabaki zezan estatistika datuetara sarbidea eman edo ez.

Horri dagokionez, komeni da zehaztea 19.4 artikulua nori esleitzen dion sarbidea izateari buruzko ebazpena, hau bezalako kasuetan, zeren eta arau horrek ez baititu aipatzen unitateak, administrazio organoak ez eta GHPGOLek behartzen dituen subjektuak, ezpada *“beste bat”*, soil-soilik.

Kontzeptua hala zehazgabeki emanik huts egiten du GHPGOLek, hori du akatsetako bat, baina, hala ere, legearen interpretazio osagarri bat eginez, eta kontuan izanik bai legea gidatzen duten oinarritzko printzipioak bai haren izaera sistematikoa, aditu behar da *“beste bat”* horrek izan behar duela informazio publikora sarbidea izateko eskubidearen subjektu pasiboetako batek, 9. oinarrian adierazitako lehen mailako haietako batek, hau da, administrazio publikoek eta haren sektore publikoak eratzen dituzten enteek, organoek eta entitateek, administrazio prozedurak izapidetzeko eta ebazteko ahala dutenetakoek, zeren eta, bestela, ez bailuke zentzurik legeak xedatzea *“eskabidea igorri behar zaio sarbideari buruz erabaki dezan”*.

Lehen adierazitako horrek badu jstufikaziorik kontuan hartuz gero ezen, lehen-lehenik, informazio publikora sarbidea izateko prozedurak administrazio prozedurak direla, eta prozeduran agertzen diren funtsezko kontu guztiei buruz ebaztea administrazio prozedurak ebazteko ahala duten organoei dagokiela, eta, Arabako lurralde historikoan, ebazteko gaitasun hori, Foru Gobernu Kontseiluari, diputatu nagusiari eta foru diputatu eta zuzendariei ez besteri esleitzen



diela 52/1992 Foru Arauak, III. tituluan, laugarren kapituluan (52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzkoa).

Bigarrenik, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin lotuta, 1/2017 Foru Arauaren 35. 1 artikulua aski argia da horri dagokionez, 32. artikuluko eskaera guztiei buruzko ebazpena emateko eskumena eskaera izapidetzeko ardura duen sailaren titularrari esleitzen diolarik, eskaera horien artean sartzen direlarik, orobat, esleipendun diren pertsona fisikoen eta juridikoen esku dagoen informazioari buruzkoak. Ez du inon jasotzen ezen eskumena duen saileko foru diputatuaz beste inork erabaki edo ebatz dezakeenik informazio publikorako sarbidea izateko eskaera bati buruz, eta are gutxiago aipatzen ditu ebazteko eskumena dutenetakotzat informazioa osoki edo zati nagusian sortu edo landu dutenak.

Hirugarrenik, ebazpen honetako 9. oinarri juridikoan azaldu den gisa, 1/2017 Foru Arauak behartzen ditu kontratuz edo kontzesioz foru sektore publikoko entitateekin lotura duten pertsona fisikoak eta juridikoak beren esku duten informazioa ematera, foru entitate horiek informazio publikora sarbidea izateko eskubidearen ondorioz dituzten betebeharrak betetzeko behar dutena, baina inola ere ez die esleitzen eskumenik foru erakunde bati datuak emateko egindako eskaeren gainean ebazteko.

Horrela, bada, hortik guztitik segitzen da ezen, nahiz eta Sociedad Concesionaria Intermodal Bilbao sozietateak eskatutako estatistika datuak Autobuses Cuadra S.A. sozietateak sortu dituen, ez dela bidezkoa datu horietara sarbidea izateko eskubideari buruzko erabakia sozietate horren gain uztea, ez baitu ahalik administrazio prozedura bat ebazteko; aitzitik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari zegokion ebaztea, osoki edo partez baietsiz edo ezetsiz, edo eskaera izapidetzea ez onartuz, informazio publikora sarbidea izateko eskabide hori.

Informazio publikora sarbidea izateko eskaerari buruzko erabakia Autobuses Cuadra sozietatearen gain utzi izana, hark ez duelarik horretarako eskumenik, ezinkizun juridikozko kasu bat da, eta, horrek, Auzitegi Gorenak epai askotan adierazi izan duenez —2017ko otsailaren 2ko epaian besteak beste; 91/2016 rec– deuseztagarritasuna dakar berekin.

Horrenbestez, oinarri juridiko honetan eta aurrekoan adierazitako irregulartasunak agerian, eta 39/2015 Legearen 109. artikuluan 1. paragrafoan ezarritakoaren bertutez, (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa), zeinak ahalmena ematen baitio ebazpena eman zuen organoari karga dakarten egintzak edo inoren kontrako gertatzen diren egintzak errebokatze preskripzio epea igaro ez den artean, betiere errebokazio horrek ez badakar legeak onartzen ez duen lekapan edo salbuespenik, eta betiere ez bada berdintasun printzipioaren, interes publikoaren edo antolamendu juridikoaren kontrakoa, bidezko litzateke errebokatzea Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren foru diputatuaren 1533/2017 Foru Agindu abenduaren 29koa eta atzera ekartzea C-02 Bilbo-Logroño linearen estatistika datuetara sarbidea izateko prozedurako jardun guztiak. Alabaina, Kontseilu honen helburua da begiratzea gardentasuna arautzen duten araudiak ezarritako xedapenak betetzen direla eta, beraz, badu ahalmena atzemandako huts hori zuzen dadila gomendatzeko. Hala ere, ez du bere eskurantzaren artean administrazio egintza bat errebokatze egintza bat ematea, eta, beraz, behin egiaztaturik 1533/2017 Foru Agindu horrek hutsak dituela, Kontseilu honek aditzen du egokia dela egintza eman zutenei proposatzea konpon dezatela.

Horregatik guztiatik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, aho batez, honako hau ebatzi du



EBAZPENA

Lehenengoa. Ez onartzea izapidetzeko eta proposatzea erreboka dadila Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren 1533/2017 Foru Agindu abenduaren 29koa, ebazpen berri bat eman dadin informaziora sarbidea izateko eskaeraren funtsari buruz, ebazpen honetako 10. eta 11. oinarri juridikoetan adierazitako eran, eta atzera ekar daitezela jardunak, behar bezala identifikatutako hirugarrenei alegazioetarako epea ematen zaien unera, hain zuzen.

Bigarrena. Egintza honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera;